



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

18

Denboraldia

19



ZURE ORKESTRA
GARA

BOS

**Bilbao Orkestra
Sinfonikoa**



18
Denboraldia
19



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA Denboraldi Sinfonikoa 2018-2019

Lur Kanta

Mundua mundu denetik, musika eta natura eskutik helduta ibili dira. Konpositoreek ahotsa eskaini diote Lurrari, mendez mende, eta Lurrak haien bidez kantatu du. Zenbaitetan, barrokoan adibidez, modu zuzen, deskribatzailea baliatuta. Beste zenbaitetan, erromantizismoan esaterako –non izadiak oro blaitzen zuen, eta sortzaileek ibilaldi luzeak egiten zituzten baso, mendiarte eta labar harritsuetan zehar, inspirazio bila–, sentipenak eta gogo-aldarteak iradokiz. Inpresionismoan, berriz, paisaia lausoak marraztuz, non harmonia ausartek soinu-mundu berri bat zabaldu baitzioten belarri erneari. Eta, azkenik, aro modernoan, hirien zamak abailduta, asfaltoak, adreiluak eta den-dena hartzen duen zaratak itota.

Musikaren eta naturaren arteko harreman horri eskaini diogu aurtengo denboraldiaren ildo nagusia markatuko duen zikloa: lau egitarauk osatuko dute, eta Erik Nielsen gure zuzendari titularrak gidatuko ditu. Naturarekiko kontaktua inspirazio-bide baliatu zuten konpositoreei erreparatuta, Beethoven eta Mahler agertzen dira protagonista. Biek ala biek ibilaldi luzeak egiten zituzten, paisari so; ezinbestekoa zitzairen hala aritzea. Eta obra entzutetsu bana eskaini zioten naturari: lehenengoaren kasuan, *Pastorala*, eta bigarrenaren kasuan, berriz, *Hirugarren sinfonia*, obra guztiz bikaina, non Mahlerrek gurekin konpartitzen duen barrutietako loreek, basoko animaliek, gauak, egunsentiko kanpai-hotsek eta maitasunak berak “kontatzen diotena”. Ziklo honetan, bestalde, ezin kanpoan utzi Javier Martínezen *Lurraren esnatzea* obraren estreinaldia eta Debussy eta haren itsasoarekiko begirada, ez eta Wagner ere, zeinarekin amaiera emango diogun denboraldiari, asmo handiko egitarau bat dedikatuko baitiegu haren bi emakume heroiei –Isolde eta Brünnhilde–; Rachel Nicholls soprano bikaina *tour de force* betean ikusiko dugu, zeru izartsua, basoa, erreka eta sua baitira dramaren elementu nagusiak.

Zinema, beste protagonista handi bat: *West Side Story* eta *2001: A Space Odyssey*

Programazioak baditu bi erreferentzia zinematografiko nagusi. Hasiera-ekitaldian, Bernsteinen *West Side Story* film klasiko handiaren kontzertu-proiektzioa eskainiko dugu. Hortaz, aukera izango dugu film musikal ezaguna pantaila handian proiektatuta ikusteko, eta, aldi berean, haren soinu-banda zuzenean entzuteko, BOSei interpretatuta. Hala, omenaldia egin nahi diogu iparramerikar konpositoreari, bere urteurrenean.

Bestalde, kontzertu bat eskainiko dugu *2001: A Space Odyssey* filmeko zenbait pieza hartuta; izan ere, film horrek zabaldu zion zinemarako bidea musika sinfonikoari. Kubricken film mitikoak 50 urte beteko dituen honetan, gure orkestrak Ligetiren *Atmosphères* eta Straussen *Also Sprach Zarathustra* piezak interpretatuko ditu, Xian Zhang handiaren zuzendaritzapean.

Barrokoko gizon heroiek, Wagnerren emakume heroiek

Wagnerren emakume heroiei eskainitako horretaz gain, denboraldiaren amaieran, “Aingeruak eta Heroiak” izeneko BOSbaroque egitarau baten bidez, kontratenorrenztako paper nagusiei erreparatuko diegu. Barrokoko musika erlijiosoko zenbait aria eta pertsonaia heroiko aukeratu ditugu, eta Carlos Mena interpretatzaile apartaren ahotsean entzungo ditugu.

Obra galdu bat berreskuratu izana, eta ezkontza bikain baten historia

Musikaren munduak, oro har, eta oboearenak, bereziki, badu zer ospatu: XVIII. mendean konposatutako obra bat berreskuratu da, zeina galdutzat jotzen baitzen. Ludwig Lebrun (1752-1790) oboe-jotzailerik entzutetsuena izan zen Mozarten garaian, eta, gainera, oboerako kontzertuez osatutako obra handia utzi zuen idatzita. Kontua da konpositoreak idatzitako Parisko kontzertuen serieko 5.a galdutzat jo zela hura hil ondoren. Baina Joseba Berrocal musikologo bilbotarrak partiturak aurkitu ditu, eta, hala, berriz ere argi-gunera ekarri du obra hau, bai eta konpositorearen emaztea ere: Franziska Danzi, garai hartako soprano ezagunena. Senar-emazteak hain ziren ospetsuak (batez ere Franziska, orduko benetako divoa), ezen zenbait konpositore garaikide nagusik –besteak beste, Antonio Salierik– musika haientzat espresuki idatzi baitzuten. Marina Monzók interpretatuko du Franziskaren papera, Nicolas Carpentier gure orkestrako oboe-bakarlaria ondoan duela.

Heriotza Halloween!

Santu Guztien egunarekin bat eginda, txantxetan arituko gara saihestezinak diren bi andre handik haien artean duten harremana dela bide: musikaz eta heriotzaz ari gara. Gala makabro bat eskainiko diegu, eta, gau batez, haiekin izango gara, Mozart, Marschner, Gounod, Humperdinck eta Saint-Saensen eskutik, bai eta Helmut Lachemann-ek ere, zeina bizirik dagoen klasikoa baita, 82 urte izanagatik umorerik batere galdu ez duena.

Gaztela eta Leongo zein Nafarroako orkestra sinfonikoak gonbidatu ditugu gure denboraldira

2019ko urtarilean, Gaztela eta Leongo zein Nafarroako kideak izango ditugu gurean, eta, hala, aukera izango dugu egiaztatzeko zein sasoi onean dauden Estatuko bi orkestra nagusi horiek. Biek ala biek beren zuzendari titullarrak eta izen handiko bakarlariak ekarriko dituzte. Aurrerago, BOSeK bisita itzuliko die, zeini bere egoitzan.

Frank Peter Zimmermann, Khatia Buniatishvili eta gora doazen zenbait figura gazte

Frank Peter Zimmermann biolin-jotzaile aparta eta musikari erabatekoa da, eta haren bisitaldiak beti dira gertakari handiak. Harekin batera, aukera izango dugu ezagutzeko –gurean lehen aldia izango du– azken garaian gehien nabarmendu den piano-jotzaileetako bat: Khatia Buniatishvili georgiarra. Gurean lehen aldia izango dute, halaber, etorkizun oparoko hiru bakarlari gaztek: Andrew von Oeyen pianista iparramerikarra, Josu de Solaun euskal jatorriko valentziarra eta Varvara sentiberatasun handiko pianista errusiarra. Orobat, gurean izango ditugu Philippe Quint biolin-jotzailea, Baiba Skride biolin-jotzaile bikaina eta Guillermo Pastrana biolontxelo-jotzailea.

Zuzendari gonbidatuei dagokienez, nabarmentzekoak dira, batetik, Eliahu Inbal maisu handia, zeina lehen ere izana da gurean, eta Miguel Hart-Bedoya eta lehen aipatutako Xian Zhang zuzendari txinatarrak, zeintzuek lehen aldiz joko baitute gurekin. Bestalde, Miguel Prieto eta Pablo González berriz izango ditugu gure artean, gure oskestrarekin lortu duten konplizitate berezia lagun. Nabarmentzekoa da, halaber, Diego Martín Etxebarriak gurean egingo duela denboraldiko debuta; Tokioko Nazioarteko Lehiaketan izan zuen arrakastaz geroztik, zuzendari arabarra etengabe ari da gora egiten.

Javier Martínezen Lurraren esnatzea obraren estreinaldia

Sorkuntza-lan berriari dagokionez, SGAE eta AEOS fundazioen eskutik, atsegin handiz aurkeztuko dugu Javier Martínez Campos konpositore gaztearen obra. Estreinaldi berezi-berezia izango da, gure biolontxelo-taldea osatzen duen musikarietako bat baita bera. Esan bezala, gaztea da oso, baina dagoeneko haren musika interpretatu dute Galiziako Orkestra Sinfonikoak, Valléseko Sinfonikoak eta JONDE Orkestrak, besteak beste.

Nazioarteko panoramari begira, denboraldian zehar banatuta, lehen aipatu ditugun Lachenmann eta Ligeti autoreen obrez gain, aukera izango dugu XX. mendeko klasiko bat disfrutatzeko, Bernd Alois Zimmermann, eta, orobat, Samy Moussa kanadar gazteak orkestra eta organorako konposatutako pieza txundigarria entzungo dugu.

Kontzertu berezia: MARIA JOÃO PIRES

Maria João Pires bizirik dagoen mitoa da pianoaren munduan, eta BOSek aurkezpena egingo dio datorren otsailaren 7an egingo duen kontzertu berezian. Pianista ospetsuak beste norabide bat eman dio bere karrerari, eta nabarmen murriztu du bere kontzertuen kopurua; hala, haren agerraldi bakoitza oihartzun handiko gertakizun bihurtu da. Elokuentzia, leuntasuna, dotorezia, errebeldia..., halako hitzak erabili izan dira haren estiloa deskribatzeko; haren karrera oparo arrakastatsuak erakusten duenez, ez da zalantzarik XX. eta XXI. mendeetako pianistarik gailen eta miretsien taldean dagoela dagoeneko. Egitarauan, haren bi pasio nagusiak: Mozart eta Chopinen Nokturnoak. Errepertorio honetako haren bertsioak guztiz erreferentziazkoak bihurtu dira.



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Denboraldi Sinfonikoa 2018-2019

① Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira.

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). Auditórium

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaoorkestra.eus

Hastapeneko abonua
Lur Kanta



01 urriak 4-5 West Side Story

L. Bernstein: *West Side Story*

Pelikularen proiektzioa, bakarlarien jatorrizko ahotsekin eta BOSek zuzenean interpretatutako soinu-bandarekin. Leonard Bernsteinen maisulana, bere mendeurrenaren ospakizunean.

Ernst van Tiel, zuzendaria



02 urriak 11-12 Pastorala

Samy Moussa: *A globe itself infolding*
organo eta orkestrarako

L. van Beethoven: 3. kontzertua piano eta
orkestrarako do minorrean, op. 37

L. van Beethoven: 6. sinfonia Fa maiorrean,
"Pastorala"

Andrew von Oeyen, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



03 urriak 18-19 Zimmermann au Pays Basque

P. Gaubert: *Au Pays Basque*

B. Martinu: *1. kontzertua biolin eta orkestrarako*

A. Dvorák: *7. sinfonia Re maiorrean, op. 70*

Frank Peter Zimmermann, biolina

Erik Nielsen, zuzendaria



04 azaroak 1-2 Halloween akatu dezagun!

W.A. Mozart: *Don Giovanni, obertura*

R. Strauss: *On Kixote, op. 35*

H. Lachenmann: *Marche fatale*

Heinrich Marschner: *Der Vampyr, obertura*

Ch. Gounod: *Fausto, ballet-musika*

E. Humperdinck: *Sorginen kabalgata eta Pantomima, Hansel eta Gretel*

Guillermo Pastrana, biolontxelo

Erik Nielsen, zuzendaria



05 azaroak 8-9 2001: A Musical Odyssey

G. Ligeti: *Atmosphères*

R. Strauss: *Burlesque*

R. Strauss: *Also sprach Zarathustra*

Josu de Solaun, pianoa

Christoph König, zuzendaria



06 abenduak 13-14 Baiba Skride eta Schumann

E. Lalo: *Le roi d'Ys, obertura*

B. Britten: *Kontzertua biolin eta orkestrarako, op. 15*

R. Schumann: *3. sinfonia Mi bemol maiorrean, op. 97*

Baiba Skride, biolina

Erik Nielsen, zuzendaria



07 abenduak 20-21 Gabonetako kontzertua

G. Mahler: *3. sinfonia re minorrean*

Janina Baechle, kontraltoa

Bilboko Koraleko haurren abesbatza
(J.L. Ormazabal, zuzendaria)

Bilboko Korala
(Enrique Azurza, zuzendaria)

Erik Nielsen, zuzendaria



08 urtarrilak 10-11 Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa

S. Prokofiev: *3. kontzertua piano eta orkestrarako*
Do maiorrean, op. 26

C. Debussy: *Prélude à l'après-midi d'un faune*

A. Scriabin: *4. sinfonia, op. 54 "Estasiaren poema"*

Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa

Alexander Romanovsky, pianoa

Andrew Gourlay, zuzendaria



09 urtarrilak 17-18 Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

F. Remacha: *Jai-kartela*

S. Prokofiev: *2. kontzertua piano eta orkestrarako sol minorrean, op. 16*

R. Schumann: *2. sinfonia Do maiorrean, op. 61*

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Kun Woo Paik, pianoa

Manuel Hernández Silva, zuzendaria



10 urtarrilak 31 – otsailak 01 Amerika!

A. Copland: *Mexiko aretoa*

L. Bernstein: *Serenade*

G. Gershwin/R. Russell Bennett: *Porgy and Bess, suitea*

A. Ginastera: *Egonaldia, dantza-suitea*

Philippe Quint, biolina

Carlos Miguel Prieto, zuzendaria



11 martxoak 07-08 La mer

J. Martínez: *1. sinfonia "Lurraren esnaera"*
Erabateko estreinaldia AEOS-SGAE Fundazioa

L. van Beethoven: *4. kontzertua piano eta orkestrarako Sol maiorrean*

C. Debussy: *La mer*

Varvara, pianoa

Erik Nielsen, zuzendaria



12 martxoak 21-22 Sopranoa eta oboe-jolea

W.A. Mozart: *Così fan tutte*, obertura

W.A. Mozart: *Vorrei Spiegarti, oh Dio*, K. 418

Ludwig Lebrun: *Kontzertua oboerako*
(*Munduko osorako berrestreinaldia*)

A. Salieri: *Quando piu irato fremo*

F. Mendelssohn: *4. sinfonia La maiorrean*,
op. 90 "Italiarra"

Marina Monzó, sopranoa

Nicolas Carpentier, oboea

Diego Martín-Etxebarria, zuzendaria



13 apirilak 11-12 Khatia Buniatishvili

W.A. Mozart: *23. kontzertua biolin eta orkestrarako*
La maiorrean, K. 488

D. Shostakovich: *11. sinfonia*, op. 103, "1905. urtea"

Khatia Buniatishvili, pianoa


Pablo González, zuzendaria



14 apirilak 25-26 Mahlerren 5. Inbalekin

G. Mahler: *5. sinfonia do sostenitu minorrean*

Eliahu Inbal, zuzendaria



15 maiatzak 02-03 Enigma

P.I. Tchaikovsky: *1. kontzertua piano eta orkestrarako, op. 23*

E. Elgar: *Enigma bariazioak*

Evgeny Konnov, pianoa

Miguel Harth-Bedoya, zuzendaria

babeslea



16 maiatzak 16-17 BOSbaroque Aingeruak eta heroiak

G.P. Telemann: *Don Quixotte, ouverture-suite*

Kontratenorrentzako arien hautaketa

Carlos Mena, kontratenorra

Erik Nielsen, zuzendaria



17 ekainak 06-07 Wagneriar heroiak

R. Wagner: *Tristan eta Isolda, preludioa eta maitasuneko heriotza*

B.A. Zimmermann: *Märchen-suite*

R. Wagner: *Jainkoen gainbehera, hautaketa*

Rachel Nicholls, sopranoa

Erik Nielsen, zuzendaria

Lur Kanta

Denboraldi sinfonikoa: 2, 7, 11, 17

Mundua mundu denetik, musika eta natura eskutik helduta ibili dira. Konpositoreek ahotsa eskaini diote Lurrari, mendez mende, eta Lurrak haien bidez kantatu du. Zenbaitetan, barrokoan adibidez, modu zuzen, deskribatzailea baliatuta. Beste zenbaitetan, erromantizismoan esaterako –non izadiak oro blaitzen zuen, eta sortzaileek ibilaldi luzeak egiten zituzten baso, mendiarte eta labar harritsuetan zehar, inspirazio bila–, sentipenak eta gogo-aldarteak iradokiz. Inpresionismoan, berriz, paisaia lausoak marraztuz, non harmonia ausartek soinu-mundu berri bat zabaldu baitzioten belarri erneari. Eta, azkenik, aro modernoan, hirien zamak abailduta, asfaltoak, adreiluak eta den-dena hartzen duen zaratak itota.

Musikaren eta naturaren arteko harreman horri eskaini diogu aurtengo denboraldiaren ildo nagusia markatuko duen zikloa: lau egitarauk osatuko dute, eta Erik Nielsen gure zuzendari titularrak gidatuko ditu. Naturarekiko kontaktua inspirazio-bide baliatu zuten konpositoreei erreparatuta, Beethoven eta Mahler agertzen dira protagonista. Biek ala biek ibilaldi luzeak egiten zituzten, paisari so; ezinbestekoa zitzairen hala aritzea. Eta obra entzutetsu bana eskaini zioten naturari: lehenengoaren kasuan, *Pastorala*, eta bigarrenaren kasuan, berriz, *Hirugarren sinfonia*, obra guztiz bikaina, non Mahlerrek gurekin konpartitzen duen barrutietako loreek, basoko animaliek, gauak, egunsentiko kanpai-hotsek eta maitasunak berak “kontatzen diotena”. Ziklo honetan, bestalde, ezin kanpoan utzi Javier Martínezen *Lurraren esnatzea* obraren estreinaldia eta Debussy eta haren itsasoarekiko begirada, ez eta Wagner ere, zeinarekin amaiera emango diogun denboraldiari, asmo handiko egitarau bat dedikatuko baitiegu haren bi emakume heroi handiri –Isolde eta Brünnhilde–; Rachel Nicholls soprano bikaina *tour de force* betean ikusiko dugu, zeru izartsua, basoa, erreka eta sua baitira dramaren elementu nagusiak.



ABONUZ KANPOKO
APARTEKO ERREZITALDIA

%10eko
deskontua
BOSeko
abonatuentzat

Maria João Pires

2019ko otsailaren 7a

Auditoriuma 19:30

Sarrerak 32 €tik aurrera

W.A. Mozart, *Sonatak*
F. Chopin, *Nokturnoak*

iber:Camera rekin batera ekoiztutako kontzertua



Andrew Gourlay



Rachel Nicholls



Xian Zhang

gure DENBORALDIKO
ZENBAIT
PROTAGONISTA



Kun Woo paik




Janina Baechle



Andrew Von Oeyen



Alexander Romanovsky



Miguel Harth-Bedoya



Varvara



Khatia Buniatishvili



Eliahu Inbal



Baiba Skride



Frank Peter Zimmermann

IREKIERA BIKAINA



WEST SIDE STORY

2018ko urriak 4 eta 5



West Side Story © 1961 Metro-Goldwyn-Mayer Studio Inc.
All rights reserved.

Sarrera mota	A+	A	B	B hegala*	C	C hegala*
Sarrera Arrunta	44,00 €	40,00 €	27,00 €	24,30 €	20,00 €	18,00 €
Gazteak sarrera (30 urterarte)	14,00 €	14,00 €	9,00 €	8,10 €	7,00 €	6,30 €

* Eserleku hauetan, ikuspen murriztua dago

Denboraldi sinfonikoa hasteko, zinemagintzako erreferentzia garrantzitsu bat hautatu dugu: Bernsteinen West Side Story film klasiko handiaren kontzertu-proiektzioa.

Musikal famatuaz gozatu ahalko da zinemarako bertsioan, pantaila handian proiektatuta eta filmeko bakarlarien jatorrizko ahotsekin, BOSek soinu-banda interpretatzen duen bitartean. Konpositore iparamerikarrari egindako omenaldi handia da, aurten haren mendeurrena beteteko da-eta.

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Ganberako Denboraldia 2018-2019

Varvara, Philippe Quint eta Josu de Solaun

Ganbera denboraldia osatuko duten hamar kontzertuen barnean, hiru hitzordu nabarmentzen dira: batetik, "Bakarlari Handiak Errezitaldian" zikloan –non gure abonu-denboraldiko bakarlariak beren interpretazio-artearen beste alderdi bat erakusten baitigute–, Varvara pianistaren eta Philippe Quint biolin-jotzailearen errezitaldiak izango ditugu; bestetik, "Bakarlari Handiak BOSekin" zikloan, Josu de Solaun pianista gure musikariek osatutako hari-laukote batekin arituko da.



Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira.



Palacio Euskalduna Jauregia (Bilbo). A1 Antzoki Aretoa

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaoorkestra.eus



01

urriak 15

Irekiera Kontzertua

R. Pawasar: *Sculture 3, hiru marinbarako*

A. Piazzolla: *Tangoaren historia*

N. Rosauero: *Kontzertua bibrafono eta perkusiorako*

BOSeko perkusio taldea

Leioako Udal Kontserbatorioko ikasleak

Bakarlari handiak BOSekin

02



azaroa 12

D. Shostakovich: *Kintettoa pianoarekin, op. 57*

R. Schumann: *Kintettoa pianoarekin, op. 44*

Josu de Solaun, pianoa

BOSeko hari laukotea



03

abenduak 17

B. Martinu: *Hirukotea Fa maiorrean, H. 300*

BOSeko xirula, biolontxelo eta piano hirukotea

W.A. Mozart: *Gran Partita*

BOSeko haize taldea

Erik Nielsen, zuzendaria



04

urtarrilak 7

L. Boccherini: *Kintetoa hari eta gitarrarako Re maiorrean*

F. Mendelssohn: *Oktetoa harirako, op. 20*

BOSeko hari eta kitarra taldea



**Bakarlari handiak
errezitaldian**

05

otsailak 4

L. van Beethoven: *5. sonata biolin eta pianorako, op. 24 "Udaberria"*

J. Brahms: *2. sonata biolin eta pianorako, op. 100*

B. Bartók: *1. rapsodia, Sz. 87*

A. Piazzolla: *Le Grand Tango*

M. Ravel: *Tzigane*

Philippe Quint, biolina

José Gallardo, pianoa



06

otsailak 18

M. Haydn: *Divertimentoa biola, biolontxelo eta kontrabaxurako*

R. Strauss: *Capriccioa, hari seikoterako obertura*

A. Schönberg: *Eraldatutako gaua*

BOSeko harien taldea

Bakarlari handiak errezitaldian

07



martxoak 18

A. Soler: *Fandangoa*

L. van Beethoven: 31. sonata *La bemol maiorrean*, op. 110

J. Brahms: 3. sonata *fa minorrean*, op. 5

Varvara, *pianoa*

08



apirilak 8

G. Ligeti: *Sei bagatela*

E. Szervansky: 1. kintettoa

L. van Beethoven: Kintettoa piano eta haize instrumentuetarako, op. 16.

BOSeko haize taldea pianoarekin

09



apirilak 15

Elvis Costello:
The Juliet letters

Alberto Núñez, abeslaria

BOSeko hari laukotea

10



maiatzak 6

Soinudun paisaiak: musika eta poesia

Piazzolla, Schubert, Berlioz, Debussy,
Aita Donostiaren obrak

BOSeko arpa, biola, tronboi eta narratzaille taldea

V. D'Indy: Kuartettoa piano eta harirako la minorrean

BOSeko laukotea pianoarekin

Abonu mota 2018-2019

Denboraldi osorako abonua (17 kontzertu)

Denboraldi osorako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSe denboraldian eskaintzen dituen 17 kontzertu sinfonikoez gozatzeko.

Abonu tematikoa. Lur Kanta (4 kontzertu)

Programak: 2, 7, 11, 17

Ziklo tematiko hau denboraldi osoko haria den musikaren eta naturaren arteko harremanari dago eskainita. Konpositore handien lanez gozatu ahalko dugu, hala nola Beethoven eta Mahler musikagileen lanez. Horien bizitzetan, naturak protagonismo nabarmena izan zuen, eta lan ospetsuenetako bi eskaini zizkioten: "pastorala" lehenengoaren kasuan, eta Hirugarren Sinfonia bigarrenaren kasuan.

Debussyren itsasoaren ikuskera ezin zen ziklotik kanpo geratu, ezta Wagner ere; hain zuzen, azken horrek emango dio bukaera denboraldiari, bere heroi nagusietako bi erakusten dituen egitarauan: Isolde eta Brünnhilde.

Hastapeneko abonua (6 kontzertu)

Programak: 2, 5, 10, 12, 14, 17

Hastapeneko abonua jatorrizko filosofiarekin jarraitzen du: zaleek nahiz zaletu nahi dutenek gozatzeko moduko sei kontzertu ikusteko aukera izatea. Era askotako kontzertuak dira, baina berehalako gozamenarekin emateko baterako helburua dute, baita musika sinfonikoaren munduan sartzekoa ere.

Nahierara abonua - 6 (6 kontzertu)

Hain arrakastatsua izan den nahierako abonua horrek aukera ematen die sei kontzertu hautatzeko abonua labur propioa prestatu nahi duten zaleei.

Nahierara abonua - 9 (9 kontzertu)

Aurreko denboraldian nahierako abonua bertsio berria atera genuen, eta horrek aukera ematen du denboraldi osoko hamazazpi kontzertuen artean bederatzi hautatzeko. Abonu-formatu berri horrek oso harrera ona izan du.

Abonua 5. eta 6. palkoetarako (B eremua) edo C eremu osorako soilik dago erabilgarri.

Denboraldi Sinfonikoa • ABONUAK

Abonu Arrunta

Abonu mota	Kontzertuak	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Abonu Osoa	17	349,00 €	320,50 €	252,00 €	226,80 €	124,10 €	111,70 €
Hastapeneko Abonua	6	-	129,80 €	97,30 €	87,60 €	73,10 €	65,80 €
Abonua Nahierara - 6	6	-	136,50 €	102,40 €	92,10 €	76,65 €	69,00 €
Abonua Nahierara - 9	9	-	-	153,60 €* 138,20 €* 115,00 €			
Abonu tematikoa	4	-	95,40 €	68,00 €	61,20 €	51,50 €	46,35 €

Gazteak Abonua

Abonu mota	Kontzertuak	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Abonu Osoa	17	119,00 €	119,00 €	83,50 €	75,15 €	72,50 €	65,25 €
Hastapeneko Abonua	6	-	44,50 €	32,50 €	29,25 €	23,00 €	20,70 €
Abonua Nahierara - 6	6	-	47,00 €	33,50 €	30,15 €	24,50 €	22,05 €
Abonua Nahierara - 9	9	-	-	50,25 €* 45,20 €* 36,75 €			
Abonu tematikoa	4	-	31,50 €	23,00 €	20,70 €	17,00 €	15,30 €

* 5 eta 6 Palkoetarako (B Gunea) eskuratu daiteke bakarrik.

Denboraldi Sinfonikoa • SARRERAK**

Sarrera mota	A+	A	B	B hegala	C	C hegala
Sarrera arrunta	30,80 €	27,70 €	19,30 €	17,40 €	14,60 €	13,15 €
Gaztea sarrera	9,10 €	9,10 €	6,70 €	6,00 €	4,90 €	4,40 €
Azken ordukoa	15,40 €	13,85 €	9,65 €	8,70 €	7,30 €	6,55 €
CrediBOS	-	136,00 €	95,00 €	-	72,00 €	-

** Prezio hauek egitarau guztietarako dira baliagarriak, 1.rako izan ezik. (Ikusi prezioak 18. orrialdean)

Ganbera Denboraldia

	Prezio arrunta		Gaztea prezioa	
	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak ez direnak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak	Denboraldi Sinfonikoko abonatuak ez direnak
Abonua	41,50 €	70,00 €	17,10 €	35,00 €
Sarrera	10,00 €	10,00 €	5,00 €	5,00 €

Prezio bereziak 2018-2019

Gazteentzako abonauk eta sarrerak

30 urtera arteko gazteek deskontu handiak dituzten prezio berezietan erosi ahal dituzte abonauk eta sarrerak (ikus! abonuen eta sarreraren taula).

Azken orduko sarrerak

Gure abonatuak eskaintzen diegun abantailak bat da, nahikoa denborarekin abisatuz gero, denboraldiko kontzertura joateko eguna aldatzeko aukera izatea. Horrek esan nahi du, egitarau bakoitzean, osteguneko eserleku batzuk okupatu gabe egoten direla, abonatuak ostirala aukeratu dutelako, eta alderantziz.

Denboraldi honetan, sarrera-modalitate honek izan duen arrakastari esker, sarrerak txartel-leihatilan eta kontzertuaren egunean bertan erosteko aukera mantentzen dugu, 18:30etik 19:25era, eta benetako prezioaren %50ean.. Kontzertura joan nahi duen edozeinek erosi ahal izango ditu.

Hauek dira eskaintza honen baldintzak

- Sarrera horiei ez zaie beste deskonturik aplikatzen.
- Ezin da eserlekurik aukeratu; eremua baino ezin da aukeratu.
- Elkarren ondoan bi butaka ba ote dauden kontsultatu ahal izango da

Prezio bereziak langabe eta familia ugariarentzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia sortu dugu C Guneko sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25ekoa, 15 lagun edo gehiagoz osatutako taldeentzat.

CrediBOS

Aldez aurretik txartelak erosteko sistema ondo finkatu da, BOSek kontzertuen ikus-entzuleei txartelak erosteko ematen dizkien aukeren artean. 2018-2019 denboraldian, prezio ofizialaren gaineko % 20 inguruko deskontua dauka, eta baliagarria izan daiteke kontzertuak unea iritsi ahala hautatu nahi dituzten musika klasikoaren zaleentzat. Halaber, talde txikiek deskontu handia izateko modua ere izan daiteke.

Hastear den denboraldirako, CrediBOSek 6 txartel izango ditu, eta kontzertu baterako edo gehiagorako erabili ahalko da.

CrediBOS txartelak denboraldi sinfonikoko egitarau guztietarako balio du, 1. egitaraurako izan ezik, eta BOSen bulegoetan bakarrik saltzen da.

Denboraldi berriari buruzko datu nagusiak

Denboraldiaren hasiera eta amaiera

Hasiera: **2018ko urriaren 4a-5a**

Amaiera: **2019ko ekainaren 6a-7a**

Denboraldi sinfonikoaren datuak

17 egitarau

34 kontzertu

22 bakarlari eta zuzendari

2 orkestra gonbidatu

Hasierako kontzertu 1

Leonard Bernstein konpositoreari eskainitako egitarau 1 (1.a)

2001: Espazioko Odisea filmari eskainitako egitarau 1 (5.a)

Gabonetako kontzertu 1 (7.a)

Egitarau sinfoniko koral 1 (7.a)

Estreinaldi absolutu 1 (11.a)

Mundu-mailako berrestreinaldi 1 (12.a)

Egitarau barroko 1 (16.a)

Wagnerren heroiei eskainitako programa 1 (Clausura)

Amaierako kontzertu 1



Salmenten Egutegia 2018-2019

Abono berrien salmenta

Denboraldi osorako abonuak:

Ekainaren 25etik aurrera

Abonu laburrak

Irailaren 10etik aurrera

Sarrerren salmenta

Irailaren 17tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak.

- www.bilbaorkestra.eus
- Euskaldunako txartel-leihatilak
- Kutxabank multizerbitzu kutxazainak
- www.kutxabank.es



Beste jarduera batzuk 2018-2019

BOSen gainerako jardueraz gain (Ganberako Denboraldia Bizkaitik edo Kontzertu Didaktikoak eta Familiar programaren Denboraldia -dagokionean emango da horren berri-), BOSek zenbait konpromiso hartu ditu aldi honetarako:

ABUZTUA 2018	Abuztuak 2-3 Abuztuak 5 Abuztuak 12 Abuztuak 22	Donostiako Musika Hamabostaldia. Donostia Donostiako Musika Hamabostaldia. Sempere Kontzertuak Bizkaian. Lekeitio Aste Nagusia. Bilbo
IRAILA 2018	Irailak 7 Irailak 12 Irailak 11 Irailak 20 Irailak 27	Kontzertuak Bizkaian. Santurtzi Kontzertuak Bizkaian. Getxo Mediku-kongresurako kontzertua. Campos Elíseos Antzokia, Bilbo Soriako Musika Udazkena. Soria Musikagileak. Campos Elíseos Antzokia, Bilbo
URRIA 2018	Urriak 27	Kontzertuak Bizkaian. Basauri
AZAROA 2018	Azaroak 24, 27, 30 eta abenduak 3 Azaroak 29	OLBE. Fidelio. Bilbo La Caixaren kontzertu parte-hartzailea. Euskalduna
URTARRILA 2019	Urtarrilak 17-19	Madama Butterfly. Omán
OTSAILA 2019	Otsailak 16, 19, 22 eta 25	OLBE. Semiramide. Bilbo
MARTXOA 2019	Martxoa	Musika - Música. Bilbo
APIRILA 2019	Apirila Apirilak 18, 21, 24 eta 27	Emanaldi lirikoa. Arriaga Antzokia OLBE. Perla-arrantzaleak. Bilbo
MAIATZA 2019	Maiatzak 25	Musikaste. Erretereria
EKAINA 2019	Ekaina Ekainak 26	Emanaldi lirikoa. Arriaga Antzokia Kontzertua. Arriaga Antzokia

Omanera goaz

2019ko urtarrilean Omanera joango gara, "Madama Butterfly" operaren bi emanaldietan parte hartzeko. Produkzioa Festival Castell de Pereladarena da. Bi orkestra sinfoniko gonbidatu ditugu gure denboraldian parte hartzera, aipatu bidaia dela eta.



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

Palacio Euskalduna Jauregia
Abandoibarra etorbidea, 4 - 48011 Bilbo
T.+34 94 40 35 205 - F. +34 94 40 35 115
e-maila: abonados@bilbaorquestra.eus